Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

387

Abenduak 15, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4-5 Eguberrietako ekintzak
6 Kultura KMO
7 Gurutze Gorria
8 Kirolak: Super Amara BAT
9 Kirolak: Bidasoa Xake Kluba
10 Iñigo Lavado
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Diego Martinez
14 iGazte
15 Agenda

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920ko abenduaren 26an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaeren laburpena egiten du. Aldizkariko lehen artikuluan Gipuzkoako artikuluaren. "T." hizkiarekin sinatzen duen kolaboratzaileak "El gabán del Marqués" titulua daraman olerkia beroki baten inguruko istorio bitxia kontatzen du. Jarraian, E.R-k "Poderoso caballero es don dinero" testuan diruak eragindako guztiaz gogoeta egiten da. "Versos Romanticos" atalaren barnean Yolé-k maitasun traizioaren inguruan gogoeta egiten du. Ostean, trenbideko langileek "El Economato eta "Asociación general" izenez ezagutzen direnen bitartez lortutako abantailez hitz egiten da.

Kirol kronikan Real Union taldeak "Futbolerias" izeneko txapelketaren barruan azken partiduetan lortutako emaitzen laburpena egiten da. Hortaz soldadu Frantziarraren alde antolatutako diru bilketaren emaitzen berri ematen da. Justinianoren idatzian Gabonetako festen ospakizunerako jaso beharreko diru-sarrera apartekoez hitz egiten da. Stefaniani piano-jolearen hurrengo emanaldiak aipatzen ditu "RE-LA-MI-DOk" bere idatzian. "Cosas de la Calle" atalean gai ezberdinenak aipatzen dira, hau da, hirian astekari berri bat sortzeko asmoa dagoela eta Tenorio markesak Irunen gastatutakoaz, besteak beste.

Aldizkariaren hirugarren orrialdearen hasieran Alkatetzatik zabaldutako bando bat publikatzen da, hiritarren erroldatzearekin loturiko nobedadeekin. Ondoren, azken udal bilkuran hartutako erabakiekin zerrenda osatzen da. Ostean, bi zutabetan hiriaren historiaren errepasoa egiten duen kontakizunaren kapitulu berria irakur daiteke, zenbakiz zenbaki osatuz doan historia kontatzen duena. Jarraian, Gabonekin loturik hirian antolatzen diren ekitaldien berri ematen da, adibidez, Olentzero eta Jaiotzen kontzertua. Zenbakia amaitu aurretik, "Ecos de Sociedad" atalean hiriko pertsona esanguratsuen bizitzetan izandako nobedadeen berri ematen da publizitate orriaren aurretik.

Argazkiak:
G26994: Fernando Etxeparek zuzendutako Ametsa Abesbatza Ama Xatalen ermitaren barnean kokatutako jaiotzaren aurrean abesten 1969ko Gabonetan.
G51687: Santiagotarrak elkartearen antzezpen irabazlea 1966ko Olentzero lehiaketan.
G20557: Arkalen Errege Magoen ospakizuna "Anticarros" batailoiko militarren semeentzat 1951. urtean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

2.200 irundarrek parte hartu dute 2020ko Euskaraldian

Pasa den abenduaren 4an amaitu zen ofizialki Euskaraldia hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Guztira, 2.200 irundarrek parte hartu dute 2020ko Euskaraldia eta parte-hartzaileen %31 berria izan da. Euskal herri osoan, berriz, 180.000 norbanakok parte hartu dute hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburua duen talde ariketan.

2020ko Euskaraldian Irungo parte hartzaileen %77ak, 1.689 norbanako, Ahobizi rola hautatu du. Gainontzeko %33a, aldiz, Belarriprest rolean aritu da, hau da, 500 lagun. Generoaren arabera, 10etik ia 6 baino gehiago emakumeak izan dira, hau da, %64a. Ariketaren %35a gizonezkoak izan dira eta ez-bitarrak %1a. Irunen Euskaraldiaren bigarren edizioan 30-44 urte arteko irundarrek parte hartu dute gehienbat, parte-hartzaileen %38a izan baitira. Segidan, 45 eta 60 urte artekoak daude parte-hartzaileen %32 izan baitira eta, ondoren, 16-29 urte bitartekoak %19ko parte-hartzearekin. Azkenik, 60 urtetik gorak izan dira parte-hartzaileen %10a. Parte-hartzaileen %1ak, aldiz, ez du jaio- tza-urterik zehaztu.

Aurtengo edizioan, Irungo parte-hartzaileen 10etik 3k adierazi du 2018ko Euskaraldian parte hartu ez zuela. Hau da, aurtengo parte hartzaileen %30a, 697 norbanako, Euskaraldiko parte-hartzaile berriak izan dira. Hortaz, ariketa sozialak Ahobizi eta Belarriprest berriak erakartzeko gaitasuna izan duela ondorioztatu dute Euskaraldiaren antolatzaileek.

Aurtengo edizioan, norbanakoak ez ezik, ariketak ere talde izaera izan du. Horretarako, ariketa martxan jarri aurreko asteetan hiriko elkarte eta entitateek Ariguneak sortzeko aukera izan zuten. Irunen 93 entitatek eman zuten izena, eta ia 400 Arigune sortu dituzte, barne-ariguneak (taldearen barnean), nahiz kanpo-ariguneak (herritarrekin harremanean).

Abenduaren 11n, berriz, 2020ko Euskaraldia amaitu ostean balorazioa egiteko bilera antolatu zen Palmera Montero gunean. Irundarrek eta Udalaren ordezkariek bileran aurrez aurre parte hartuz edo parte-hartze telematikoaren bitartez ariketa sozialaren emaitzen inguruan gogoeta egiteko aukera izan zuten.

Euskaraldia ikusgarri egin duten ekintzak

Irundarrek ariketa soziala taldean zein bakarka egitera animatzeaz gain, egitarau berezia ere antolatu du Irungo Udalak, Euskaraldia Batzordearekin elkarlanean. Denera, 9 jarduera egin dira azaroaren 20an hasi eta abenduaren 5era bitarte.

Mónica Martínez Euskara ordezkari gisa azaldu du, "egitaraua COVID-19ak eragindako baldintzetara egokitu behar izan badugu ere, irundarren erantzuna ederra izan da". Euskara ordezkariak ere eskerrak emateko aprobetxatu du: "Irungo Euskaraldiaren antolaketan aritu direnei, ekitaldietara bertaratu direnei eta ariketa sozialean parte hartu duten Ahobizi eta Belarriprestei eta entitateei eskerrak eman nahi dizkiet Irungo Udalaren izenean. Gaurtik aurrera ere, gehiago, gehiagorekin, gehiagotan jarraituko dugu inertziak apurtzen; egunean 24 orduz, astean 7 egunez. Euskarak 365 egun ditu-eta".

Oiasso Erromatar Museoak Gabonetako programazioa aurkeztu du

Erromatar museoak Eguberrietako eskaintza aurkeztu du, aurten, bereziki, familiei zuzndutа egongo dena. Jarduerak urtarrilaren 6ra arte luzatuko dieta eta hainbat tailer, erakusketa, hitzaldi eta txango antolatuko dira. Ekimenak COVID-19aren pandemiaren harira ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak kontutan hartuta programatuko dira.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariaren hitzetan, "Oiassok ez dio Eguberrietako programazioarekin duen hitzorduari hutsik egiten". Kultura ordezkariak azaldu duenez, beste ekipamendu batzuekin gertatu den bezala, eskaintza egungo egoerara egokitu da. Hala ere, kultura hurbiltzeko eta jakin-mina pizteko helburuari eusten zaio, familiako kide guztientzako proposamen erakargarri eta dibertigarrien bidez".

Oiassok programatuta dituen jarduera batzuek doako sarrera dute, aldez aurretik erreserbarik egin beharrik gabe. Beste batzuen kasuan, aldiz, sarrera aurretik eskuratu beharko da edo lekua aurretiaz erreserbatzea beharrezkoa izango da. Edukiera mugatua izango duten ekintzetan izena emateko 943639353 telefono zenbakira deitu edo info-oiassomuseo@irun.org helbide elektronikora idatzi.

Eguberrietako ekintzak

Urtarrilaren 31ra arte "Pandemiak Antzinatean" erakusketa bisitatzeko aukera egongo da. Doako sarrerak iraganean mendebaldea astindu zuten gaixotasunen sintomak, eragina eta ibilbidea erakusten du erakusketak. Bisita gidatuei dagokienez, igandeetan Irun Erromatarra ezagutzeko Ama Xantalen Ermitaren bisitak antolatuko dira. Bisita elebidunak goizeko 11:00etan hasi 12:30etan amaituko dira. Larunbatetan, aldiz, 11:00etatik 12:30etara Irugutzetako meatze-eremua ezagutzeko tren bisitak antolatu dira. Bi bisitek tarifa berdinak dauzkate, hau da, helduentzat 5,50 euro eta gazteek 3,85 euro ordaindu beharko dituzte.

Abenduaren 22 eta 29an Mosaiko teknikak deskubritu eta mosaiko propioa egiteko tailerrak antolatuko dira 6-12 urte arteko haurrentzat. Abenduaren 23 eta eta 30ean, asteazkenak, erromatar soldaduak nola janzten ziren deskubritu eta kaskoak egiteko aukera izango dute 8-12 urte arteko haurrek. Mosaiko eta erromatar kaskoen tailer elebidunak goizeko 11:00etatik 12:30etara egingo dira eta 4 euroko prezioa izango dute.

Azkenik, urtarrilaren 5ean Oiassortu pintura lehiaketa antolatuko da familia, gazte eta helduentzat. Lehiaketan museora sartu eta pieza bat edo gehien gustatutakoa marraztu beharko da. Neurri sanitarioak direla eta, bakoitzak marrazteko eta margotzeko bere materiala ekarri beharko du (arkatzak, margoak, ...). Emaitzekin erakusketa bat egingo da Oiasso Museoan. Jarduera egun osoan zehar egingo da eta parte hartu ahal izateko 2 euroko tarifa ordaindu beharko da.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irun Gabon berezi eta ezohikoa

Irungo Udalak Gabonetako kanpainaren lehen zertzeladen berri eman du. 2020. urteko Eguberriak, ordea, ezohikoak izango dira, izan ere, COVID-19ak eragindako osasun krisialdiarengatik guztiz baldintzatuta egongo baitira. Nolanahi ere, udaletik Olentzero eta Errege Magoekin kontaktuan daude urtero bezala hirira haien magia segurtasunez iritsi dadin.

Eguberriek Irunen urte batetik bestera errepikatzen diren ekitaldiak izan ohi dituzte. Aurten, aldiz, COVID-19aren pandemia dela-eta, ekitaldirik ohikoenetako batzuk egitea ezinezkoa izango da. Hala ere, kultura arloak beste zenbait ekitaldi momentuko egoerara egokitzeko lanean ari da, osasun agintariek unean-unean ezartzen dituzten neurri eta murrizketak betetzeko. Juncal Eizaguirre kultura ordezkariak adierazi duenez, "badakigu aurtengo Eguberriak ez direla nolanahikoak izango".

Gauzak horrela, "Zure Eguberriak Irunen daude" lelopean Irun Gabonetako egun berezi batzuk bizitzeko prestatzen ari da. Eguberrietako programazio ezohiko eta berezi hau antolatzerako orduan Kultura ordezkariak jarduerak antolatzerako orduan pandemiak gogorkien jotako jarduera sektoreak kontutan izan dira eta horiek izango dira Eguberrietako kanpainaren protagonistak Juncal Eizaguirrek baieztatu duenez. Gainera, Olentzero eta Errege Magoen desfileak ezingo dira orain arte bezala egin, eta, horregatik, Kultura Arloak ordezko ekitaldi estatikoak antolatzeko aukera landu du azken asteetan zehar. Zehazki mota honetako ekitaldien bitartez edukiera kontrolatu nahi da, horrela, jende pilaketarik ez gertatzeko

Kultura arloak jakinarazi duenez, Eguberrietako programazioaren barnean bertan behera geldituko den jardueretako bat urtero abenduaren 21ean Urdanibia plazan antolatzen diren San Tomas eguneko ekitaldi guztiak izango dira, hau da, San Tomas azoka, txosnak eta musika emanaldiak . Era berean, abenduaren 24ko arratsaldean San Juan plazan egin ohi den Gabon Kanten Jaialdia antolatzea ere ezinezkoa izango da. Bestalde, Hiri Bultzadako Arloak jakinarazi duenez, aurten ez da izotz pistarik jarriko.

Olentzero eta Errege Magoak

Juncal Eizaguirrek azpimarratu duenez, hiriko txikienak Olentzero eta Errege Magoen etorreraz segurtasunez gozatzeko ekitaldi ezberdinak antolatuko ditu Kultura arloak. "Beharrezkoa bada, hirira lehenago etortzea ere eskatuko diegu, elkar ikusteko denbora gehiago izan dezagun", gaineratu du Kultura arloko ordezkariak. Antolatuko diren ekitaldi estatiko horiez gozatu ahal izateko haurrek eta haien familiek aurrez gonbidapenak lortu beharko dituzte, era honetan, aretoen edukiera kontrolatu eta jende pilaketarik sortzea saihesteko.

Olentzeroren kasuan, Betti Gotti elkartearen eskutik, Amaia Kultur Zentroa apainduko da abenduaren 22 eta 23an Olentzero eta Mari Domingiri harrera egiteko. Egun bakoitzean hiru emanaldi antolatuko dira 12:00, 16:00 eta 18:30etan. Gonbidapenak sarreren salmentarako udalak kudeadutako webgunean eskuratu ahalko dira abenduaren 15eko 10:00etatik aurrera. Pertsona bakoitzak 4 gonbidapena eskuratu ahalko ditu gehienez. Gainera, udaletik gogoratu dutenez, emanaldiaz gozatu nahi duten haur zein heldu guztiek gonbidapen bana eskuratzea ezinbestekoa izango da.

Errege Magoen kasuan, berriz, harrera Ficobako 3. pabilioian egingo da urtarrilaren 4 eta 5ean. Etxeko txikienek Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisita urtero desfilean parte hartzen duten Disney pertsonai eta haien karrozekin gozatzeko aukera izango dute. Kasu honetan, ekitaldiak "azoka formatua" izango du, beraz, bi egunetan zehar 20 minuturo Erregeak ikusteko paseak antolatuko dira urtarrilaren 4ko arratsaldean eta urtarrilaren 5eko goiz eta arratsaldean zehar. Kasu honetan ere sarrera doakoa izango da eta aurrerago jakinaraziko den egun eta orduan eskuratu ahalko dira. Emanaldi estatikoan Errege Magoak, haien laguntzaileak, karrozak eta bestelako animazioak ikusi ahalko dira.

Era berean, Kulturako ordezkariak hirira Olentzero eta Errege Magoen etorrera antolatzen laguntzen duten elkarte eta entitate guztiei eskerrak eman dizkie. "Haien inplikazioa eta dedikazioa funtsezkoak dira urtero, are gehiago aurten, dena ondo atera dadin", azaldu du Juncal Eizaguirrek. Olentzeroren kasuan Betti Gotti elkartea antolatzen da hirira bere etorrera antolatzea. Errege Magoen harrera ekitaldian, aldiz, honako entitate hauek parte hartuko dute: Irun Hiria Musika Banda, Irungo Atsegiña, Santiagoko Deabruak, aisialdiko taldeen koordinakundea, Analia Bellydance Ekialdeko Dantzako Akademia, 22 Academy, Batukada Skola Musik, Ondare Kultur Elkartea, San Vicente de Paúl Majoretteak, Auntxa Trikitixa eta BAF 7301 Trenaren Lagunak.

ak ospatzeko prestatzen hasi da

Eskutitzen bilketa

Momentuko osasun krisialdia dela eta, Olentzero zein Errege Magoentzat haurrek idatzitako gutunak biltzeko bide ezberdinak eskainiko dira aurten. Abenduaren 18tik aurrera hirian barrena Olentzero eta Errege Magoen eskutitzak jasotzeko postontzi apainduak ipiniko dira. Postontzi horiek Palmera Montero gunean, Mendibil merkataritza guneko BM saltokiaren aurrena, Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoan eta Euskal Herria hiribidean Skola Mucik-en egoitzan kokatuko dira. Eskutitzak entregatzeko postontziek ordutegi desberdinak izango dituzte egunaren arabera, udal webgunean kontsultatu daitezkeenak.Horrela, Olentzeroren gutunak abenduaren 18tik 23ra arte jasoko dira, Errege Magoenak, berriz, abenduaren 28tik urtarrilaren 3ra jasoko dira. Postontziek gainera bi figuranteen konpainia izango dute postu bakoitzean, gutunaren entrega dinamizatu eta hiriko txikienekin interakzioan aritzeko.

Ildo beretik, bideokonferentziak puri-purian dauden honetan, teknologia berriak baliatuz, Kultura arloa aplikazio bat erabiliz etxetik gutunak bidali ahal izateko aukera eskaini ahal izateko lanean ari da. Horrela, gailu mugikorren bitartez, haurrek Errege Magoekin eta Olentzerorekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, haien eskaerak eta eskatu nahi dituzten opariak helarazteko aukera izan dezaten. Gutun hori abenduaren 18tik aurrera udal webgunearen bitartez bidali ahalko da.

Era berean, abenduaren 24ean arratsaldeko 20:30etan Olentzerok mezu berezia bidaliko die hiriko neska-mutilei Irungo Udalaren Youtube kanalaren bitartez. Urtarrilaren 5eko 20:30etan, berriz, Errege Magoek hiriko haurrei zuzendutako bideo berezia argitaratuko da.

Hirian zentratutako kanpaina

Aurtengo Gabonetako kanpaina aurkezteko "Zure Eguberriak Irunen daude" leloa aukeratu da, hiritik atera gabe Gabonetako giroaz gozatzeko aukera eskaintzeko. Era honetan, pandemiak bertako jarduera sektoreetan, hala nola, ostalaritza eta merkataritzan, izandako ondorioak direla-eta, arduraz jokatzea eta erosketak egiterakoan bertako ekonomiaren aldeko apustua egiteko mezua helarazi da. Eguberrietako Azoka hurbileko merkataritza bultzatzeko aukera hobezina izango da udaletik adierazi denez.

Guztira zurezko hamabi etxola jarriko dira eta hauek izango dira azokako parte hartzaileak: Zinia loradenda, Ekialde, Orlegi, Sonia Ruiperez, El baúl de las ideas, The Museum Food & Drinks, Deperita fruta-denda, Picking Pack, A Pedir de Boca, Sugar, etaSportjam Shop. Aurten berritasun gisa azokak irauten duen guztietan erakusketari berdinak izango dira, ez da postuen txandaketarik egingo. Gainera, aurreko urteetan parte hartu ez duten saltokiek lehentasuna izan dute azokan izena ematerako orduan.

Eguberrietako Azoka abenduaren 18tik 27ra bitartean jarriko da eta aurten Zabaltza plazan kokatuta egongo da. Azokak ordutegi ezberdina izango du egunaren arabera, jada udal webgunean kontsultatu daitekeena. Udalak hirugarren urtez jarraian azokaren antolaketaren aldeko apustua egitea erabaki du. Aurten, gainera, azoka handiagoa izateko apustua egingo du udalak, pandemiaren ondorioz Zabaltza plazan aurreko urteetan egin bezala izotz pistarik jarriko ez dela aprobetxatuz.

"Made in Irun azoka izatea nahi dugu"
Juncal Eizaguirre, Kultura ordezkaria

"Made in Irun azoka izatea nahi dugu" azaldu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkaria. Izan ere, azoka bertako artisten sorkuntzekin eta argiztapen bereziarekin apainduko da. Era honetan, azokan bertako artisten parte hartzea sustatuko da, Zabaltza plaza arte areto inprobisatu batean bihurtuz. Horrela, 0KM-aren aldeko apustuaren bidez, gertuko saltokiak eta kultura babestuko da.

Segurtasun neurri guztiak beteko direla bermatzeko azoka eremuaren sarreran, edukiera, segurtasun distantzien errespetua eta gel hidroalkoholikoaren eta maskararen erabilera egokia kontrolatzeko arduradunak izango dira. Behin bisitariak eremuan sartuta, berriz, markatutako bideari segitu beharko zaio, eta segurtasun distantziak errespetatuz eta ibilbide zirkularra jarraituz. Gainera, egun bakoitzaren bukaeran, azokako instalazioak garbituko dira.

Bestelako ekitaldiak

Dena den, Eguberrietan zehar Irunen egingo diren ekitaldi guztiak udal webgunean sortutako atal berezituan kontsultatu ahalko dira. Egun zehatz batzuetan Ficoba eta erdialdea lotuko dituen doako autobus zerbitzua martxan jarriko da. Zerbitzua abenduaren 12, 19, 23, 24 eta 26an egongo da martxan. Etenik gabeko zerbitzua izango da, 10:20tik (Genaro Etxeandiaren irteera) 14:00ak arte (azken irteera Genaro Etxeandiatik) Hiru irteera izango dira orduro ('00 '20 '40), eta tarteko geraleku bat izango da Iparralde hiribidean. Bertako sektorearen eskaera bat jasotzen du proposamenak, eta helburua Eguberrietako kanpainan hiriko establezimenduetan kontsumitu dadila erraztea da. Era berean, Eguberrietako kanpaina honi begira, Irungo Udalak 10.000 bonu banatuko ditu, herriko merkataritzaren eta saltokien elkarteen eskutik, TAOn minutu batzuetan doan aparkatzeko, eta saltokiek bezeroen artean banatu ahal izango dituzte, beren dendetan erosi ondoren.

Aipatutako ekitaldiez gainera, Kultura arlotik Eguberrien inguruan urtero antolatzen diren beste jarduerak aurten nola egingo diren azaldu da. Urtero bezala Amaia Kultur Zentroan Gipuzkoako Belenzaleen Elkarteak jaiotza eta Olentzeroen erakusketa jarriko du abenduaren 18tik urtarrilaren 4ra bitartean. Bestetik, BAF 7301 elkartearen eskutik, tren maketen erakusketa antolatu da abenduaren 21etik urtarrilaren 4ra. Tren maketen erakusketa Palmera-Montero Gunean bisitatu ahalko da astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:00etara, eta larunbat eta igandeetan, 11:30etik 13:30era.

Ekintza hauekin guztiekin Gabon ezohiko bezain seguruak ospatuko dira hirian 2020. urtea agurtzeko.

Kilometro zeroko kulturak hitzordu bereziak izango ditu Irunen abenduko hilabetean zehar

Kultura KM0 ekimena urriko hilabetean martxan jarri zen Irunen pandemiaren aurrean kulturaren sektoreko profesionalak babesteko helburuarekin. Ekimenean parte hartzeko asmoa zuten sortzaileen eskaerak jaso ostean, Kultura KM0 programa osatuko duten jardueren programa aurkeztu da. Irungo artisten kolektiboak programaren esleipen prozesua zalantzan jartzen dituzten bi gutun igorri ditu Irungo Udalera.

Kulturak KM0 programaren barnean antolatutako jarduera nagusietako bat abenduaren 28 eta 30ean Amaia Kultur Zentroan Irungo artistekin egingo den emanaldia izango da. Kultura jaialdiak musika, dantza, antzerkia, zirkua, magia, kultura urbanoa eta abar uztartuko ditu. Jaialdia bi pasetan egingo da, emanaldiak abenduaren 28an eta 30ean egingo baita arratsaldeko 19:00etatik aurrera, 8-10 minutuko iraupena izango duten errezital laburrekin. Emanaldiez gozatzeko aukera eskainiko duten sarrerak 4,40 euroren truke eskuratu ahalko dira Irungo emanaldietarako sarreren salmentarako webgunean, Luis Marianoko turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroan emanaldiaren egunean bertan.

Ana Pérezen zuzendaritza artistikoarekin eta Asier Burguete eta Álex Mahónen aurkezpenarekin, hauek izango dira eszenatokitik igaroko diren artistak: Patxi Pérez (antzerkia), Irati González Jaimerena (zirko akrobatikoa), Antton Ganzarain (biolin elektrikoa), Josune Gurrutxaga eta Jon Menor (aretoko dantza), Aritz Petricorena (magia), Burrunba Elektrotxaranga, Esther Barandiarán (piano), Leticia Vergara (kantua), Mario Simancas (bakarrizketa), Borja Mora, Son de Rue taldekoa, (musika urbanoa), Adriano Mr. Lobster (zerrote musikala). Programa ez dago guztiz itxita eta ez da azken orduko ustekaberik baztertzen.

Juncal Eizaguirre kultura ordezkariak azaldu duenez, azken hilabeteetan zehar kultura seguruaren aldeko apustua egiteko ahalegin ezberdinak egin ditu Irungo Udalak. “Krisiaren ondorioak jasaten ari dituen sektoreetako bat laguntzeko modua da”, azaldu du kultura ordezkariak. Oraingo honetan, gainera, kultura babesteko beste urrats bat eman nahi izan dela azaldu du Eizaguirre, epe labur ertainean bertako kultur sortzaileei laguntzeko talka-plana aurkeztuz.

Bestelako emanaldiak

Kultura KM0 jaialdi bikoitzaz gainera, kulturaren sektorea babesteko bestelako emanaldiak antolatu dira abenduko hilabetean zehar. Zehazki, abenduaren 6an Uikan konpainiak emanaldia eskaini zuen Amaia Kultur Zentroko dantza aretoan. Hilaren 10ean Kulto Kultibo taldearekin eta abenduaren 11n Iñaki Estevezekin, 19:30etik aurrera, ´Master-class´ bana egin zen. Hortaz gain, Iker Martin saxofoi jotzaileak eta Ylenia Benito kazetariak Charles Dickensen Gabonetako ipuin klasikoaren bertsio egokitu eta musikatua aurkeztu zuten abenduaren 12an. Era berean, Menchu Gal aretoan 0 Km Kulturaren esparruan, dantza ikuskizunak antolatu dira abenduaren 19 eta 20rako. Myriam Pérez Cazabón konpainiaren eta Jonathan Mesonero biolin-jotzaileak eskainitako emanaldiak izango dira.

Azken ikuskizun hauek doakoak izango dira eta gonbidapenak emanaldi bakoitzaren egunean bertan jasoko dira, 50 minutu lehenago. Myriam Pérez Cazabón konpainiaren eta Jonathan Mesonero biolin-jotzailearen emanaldietarako gonbidapenak Menchu Gal aretoan jaso beharko dira, udako programako mekanika bera jarraituz.

Azpimarratzekoa da, halaber, espazio eta emanaldi horietan guztietan COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurriak zorroztasunez beteko direla. Hau da, edukiera murriztua izango dute, segurtasun-distantziak errespetatuko dira, maskara nahitaez erabiltzea derrigorrezkoa izango da eta eskuak garbitzea beharrezkoa izango da. Gainera, emanaldiak 21:00ak baino lehen amaituko dira. Gainera, Maialen Arocena Garcia artistak mural bat egingo du Gain Gainean parkean. Tokiko artisten lanen erosketari dagokionez, udal bilduman sartuko da eta laster artista horien izenak ezagutaraziko dira, erositako lanak aurkezteaz gainera. Ekintza guztiak bideoz grabatuko dira, ostean, programaren barruan egindako ekintza guztiak laburpen-bideo batean erakusteko.

Irungo artisten kolektiboaren desadostasuna

Irungo Kultura KM0 programaren emaitzak ezagutzera eman ostean, Irungo artisten kolektiboak hiriko alkate eta udal-zinegotziei zuzendutako gutuna helarazi zien. Hiriko 19 artistek sinatutako gutunaren bitartez Kultura KM0 diru-laguntzaren esleipen prozesuaren inguruko azalpenak eskatu zituzten artistek.

Artisten kolektiboak abenduaren 1ean adierazi zuenez, programa emaitzak aurkeztu ostean, diru-laguntzaren deialdia prentsan eta sare sozialetan argitaratu zen bakarrik. Beraz, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Irungo Udalaren atariaren publikatu ez izana salatu zuten. Gauzak horrela, aukeraketa prozesua nola gauzatu zen, diru-laguntza eskatzeko bideak eta prozedura zeintzuk izan ziren argitzea eskatu zuen artista irundarren kolektiboak. Hortaz gain, aurrekontuaren desglosea eskatu zuten, diru publiko partida horren banaketa ezagutarazteko gardentasun ariketa eskatu zieten Irungo udaleko agintariei.

Aste berean, Irungo artisten kolektiboak bigarren gutun bat zuzendu zien Irungo Udaleko ordezkariei. Bigarren gutunaren bitartez, aurreko gutunak jasotako erantzun “laburra” salatu dute, “deialdia berdintasun, publizitate, gardentasun eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatu gabe” egin zela salatuz. Bigarren gutunaren bitartez kolektiboak gardentasun ariketaren eskaria errepikatu dio udalari, momentuko krisialdi egoeran era horretako diru-laguntzek kulturaren sektorea laguntzeko duten garrantzia azpimarratuz.

Ondorengoak dira Irungo artisten kolektiboaren izenean Irungo Udalera zuzendutako lehen gutuna sinatu zuten artistak: Pau Montagut Ibanyez (argazkilaria, Belarte elkarteko presidentea), Ruben Mejuto Fernandez (musika irakaslea eta koru zuzendaria), Julio Bravo Maldonado (Irungo kontserbatorioko irakaslea), Zoa Tamara Cuellar (Ostomila Txotxongilo taldeko zuzendaria), Maite Aseguinolaza Montes (musikaria), Ion Martinez Santamaria (musikaria), Juan José Roldán Hernandez (musikaria), Jon Galdos Cazabon (txalapartaria), Felix Martín Cámara (dokumentalista), Anne Perez de Azpeitia Hamilton (musika pedagogoa eta konpositorea), Karmele Martin Camara (poeta), Mikel Sucunza (musika irakaslea eta gitarra jotzailea), Osmar Mijail Vazquez Claro (aktorea eta antzerki zuzendaria), Mikel Goñi Ruiz (musikari independentea), Alberto Couto Muñoz (aktorea), Maite Munarriz Mendizabal (Belarte elkarteko kidea), Alvaro Maria Hortelano Diaz. (perkusionista), Andrea Giraldo Sevilla (antropologoa, ikerlaria eta poeta) eta Hans Dieckmann Goñi (zirku artista). Bigarren gutunean, aldiz, Txemari Leiza, (Vola Verunt taldeko bateria) eta Grillo Martín Cámararen (kartelgilea) sinadurak batu ziren aurretik aipatutako artisten kolektibora.

Irungo Gurutze Gorria pandemiatik Gabonetara etenik gabe lanean aritu da

2020. urtea lan handikoa urtea izan da Gurutze Gorriak Irunen duen egoitzarentzat. Pandemiaren garapena lehenengo lerrotik jarraitu dute, gizartean sortutako beharrei erantzunez. Eguberrietan, berriz, elkarteak ohiko jostailu bilketa antolatu du. Txema Pérez Irungo Gurutze Gorriko presidenteak eta Saioa Errazquin Irungo egoitzako arduradunak Gurutze Gorriak urtean zehar aurrera eramandako ekimen ezberdinen inguruan mintzatu dira.

Zenbat urte daramatza Gurutze Gorriak Eguberrietako jostailu bilketa antolatzen?
Saioa: Gurutze Gorriaren ibilbide luzea kontutan hartuta, elkartearen proiektu berrienetako bat dela esan daiteke. Lehen bilketak 80ko hamarkadaren amaieran edo 90eko hamarkadaren hasieran antolatu baitziren. Urteek aurrera egin ahala, jostailu bilketa garai berrietara egokitu da.

Zein motako jostailuak biltzen dituzue?
Saioa: Jostailu berriak jasotzeko bilketa antolatzen dugu Gabonen atarian. Hortaz, jendeak jostailu hezigarriak ekartzea eskatzen dugu, hau da, izaera beliko eta sexistarik gabeak.

Txema: Jostailu berriak izatearen eskakizunarekin 3 edo 4 urte daramatzagu. Hasieran polemika handia sortu zuen arren, ulertu beharra dago haur guztiek jostailu berri bera merezi dutela.

Saioa: Izan ere, laguntza jasotzen duten pertsona horiek ez dira burbuila isolatu batean bizi eta beste edozein haur bezala erabilitako jostailu bat jasotzeko aukera dute.

Jostailuak biltzeaz gainera, diru ekarpena egiteko aukera eskaintzen duzue?
Txema: Momentuko egoerara egokitzeko modua da. Transferentzia ekonomikoen bitartez pertsonen arteko kontaktua zuzena saihesteko bidea eskaini nahi da.

Aurten dohaintzen kopuruak gora egin du?
Saioa: Irunen jostailuak entregatzeko eguna abenduaren 11ean amaitu zen, beraz, bilketa amaitu arte ezingo dugu jakin aldaketa nabarmenik izan den. Hala ere, kopuruak oso antzekoak dira aurreko urteetakoekin alderatuta.

Txema: Orain arte urtero haur guztiek haien jostailuak jaso dituzte. Jostailuen eskaerek ere aurreko urteetako zifretan daude momentuz.

“Me Cago en Irun” eta Marrubik martxan jarritako ekimenen eragina nabaritzen da?
Txema: Honelako ekimenek ezagutarazten laguntzeko “Me Cago en Irun” bezalako beste taldeen ekarpena eta zabalpena asko eskertzen dugu.

Saioa: Badira haien kabuz jostailu bilketak antolatzen dituzten entitateak, ostean, bildutakoa Gurutze Gorriari ematea erabakitzen dutenak.

Pandemiaren hasierak, zeintzuk izan dira hirian burututako zeregin ezberdinak?
Txema: Egun batetik bestera egoerara egokitu behar izan gara. Oso esperientzia aberasgarria eta gogorra izan da aldi berean, egoeraren aldakortasuna dela eta.

Saioa: Lehen urratsa udalak deitutako bileran parte hartzea izan zen eta, horrela, Elikagaien Bankuaren kudeaketaz arduratu ginen.

Txema: Hortaz gain, konfinatutako pertsonei eta adineko pertsonei erosketak egiten genizkien, zakarra bota edo medikamentuak erosi dizkiegu. Maskaren lehen kudeaketaz eta banaketaz arduratu ginen eta ia 3.500 musuko banatu ditugu. Gainera, 65 urtetik gorako bazkideak astero deitu ditugu haien egoeraren berri izateko. Zaisan kamioilariei arreta eskaintzeko zerbitzua martxan jarri genuen eta gune ezberdinak desinfektatu ditugu, adibidez, Polizia Nazionalaren NAN eta pasaporteak berritzeko gela. Aipatzekoa da Irungo Recondo eta Mercadona bezalako enpresen ekarpenari esker Gipuzkoako Gurutze Gorriko janari biltegia betetzea lortu genuela.

Egindako lanarengatik onarpena jaso du elkarteak?
Txema: Bai, bai biztanleriaren aldetik zein instituzioen aldetik. Azken finean, ekintza txikiak direla dirudi, baina, laguntza jaso duten pertsonek biziki eskertu digute.

Irungo Gurutze Gorriaren funtzionamendua aldatu da pandemiaren ondorioz?
Txema: Bai, guztizko aldaketa suposatu du gure funtzionamenduan. Adibidez, garraio egokitua eta osasun garraio zerbitzuak bertan behera daude oraindik.

Zeintzuk dira oraintxe martxan dituzuen ekintzak?
Saioa: Haur eta gazteei eskainitako zerbitzuak mantentzea lortu dugu, beti ere, beharrezkoa segurtasun neurriak errespetatuz, hau da, aisialdiko ekintzak eta eskola-laguntza zerbitzuak. Gela bakoitzean 3 haur sartzen dira gehienez eta familia edo eskoletako burbuilak errespetatzeko ahalegin berezia egin dugu. Momentuz behintzat, zorionez, ez dugu barnean edo kanpoan gertatutako kasu positiborik izan.

Pandemiaren ostean, boluntario kopuruak gora egin du?
Txema: Irungo delegazioaren kasuan boluntario kopuru handia dugu gurekin, Gipuzkoa mailako talde indartsuenetako bat baikara. Gainera, pandemiaren hasieratik boluntario berriak batu zaizkigu.

Nola begiratzen diozue 2021. urteari?
Saioa: COVID-19 pandemiak benetan izandako eragina datorren urtetik aurrera ikusiko dugula argi dugu. 2021. eta 2022. urteetan antzemango dira gizartean sortutako gabezia berriak. Momentuz etor daitekeenaren zain gaude, sektore bakoitzaren jarraipena eginez.

Txema: Azken urtean inertziaz funtzionatu dugu, gizartea bezala egoera berrietara egokituz. Dena den, orain arte egin bezala, egora berriei aurre egiteko prest egongo gara.

Bidasoa Atletiko Taldeak murriztapen aldaketetara egokitzeko gaitasuna erakutsi du

COVID-19ak eragindako osasun krisialdiaren bigarren olatua geldiarazteko Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriek goitik-behera baldintzatu dute Super Amara Bidasoa Atletiko Taldearen jarduera. Klubeko haur eta kirolari federatuak murriztapen ezberdinetara egokitu behar izan dira azaroko hilabetean zehar. Ibon Muñoz atletismo taldeko gerenteak, printzipioz urtarrilaren 11era arte luzatuko diren murriztapen berriak iragarri aurretik erantzun zituen elkarrizketako galderak

Nola egokitu da taldearen funtzionamendua kirol murriztapen berrien aurrean?
16 urtetik beherako taldeen jarduera eten behar izan dugu. Agindutakoarekin bete behar dugu, baina, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) Aholku Batzordearen hurrengo bileran hartu diren erabakien zain gaude. Izan ere, ez genuke ulertuko beste murriztapen batzuetan neurriak arintzea eta kirolaren kasuan, ordea, horrelakorik ez gertatzea. Izan ere, guk kirola aire zabalean egiten dugu eta beti aholkatutako neurri guztiak jarraituz. Federatuen kasuan, berriz, atletismo txapelketak antolatzen ari direnez, entrenatzen jarraitzeko aukera dute behintzat. Probak abenduaren 13, 20 eta 27an izango dira.

Haurren kasuan, konfinamendu garaiko dinamikak berreskuratu dituzue?
Bai, "Google Meet" erabiliz, talde desberdinak sortu ditugu eta klubeko haurrei etxetik era telematikoan jarduera mantentzeko aukera eskaini diegu, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Klubean 400 hau baino gehiago dauzkagu eta haur horien %15a gurekin etxetik lanean jarraitzea erabaki du. Haur horiek oso gustura daude gure eskaintzarekin, batez ere, eguraldi txarra egiten ari duen egun hauetan. Ordubetez ariketa fisikoa egiten dute, luzatze ariketak iraun bitartean monitoreek klubeko kirolari onenen bideoak erakusten dizkieten bitartean.

Federatuen kasuan, nola egokitu behar izan dituzue entrenamenduak?
Federatuak Plaiaundira datozen entrenatzera. Taldean entrenatu behar dutenak 6 pertsona baino gutxiagoko taldeetan entrenatzen dute eta gainontzekoak, gehienak, bakoitza bere kontu entrenatzen ari da. Hau da, entrenatzeko jarraibideak ematen dizkiete entrenatzaileek eta haien ardurapean gelditzen da horiek betetzea.

Kirola aire zabalean eta hein handi batean modu indibidualean praktikatu ahal izatea abantailak dakartzate egun?
Bai, horiek dira gure ustez kirol honen abantaila nagusiak. Eusko Jaurlaritzak, ordea, kirol mota guztientzako murriztapen berdinak ezarri ditu. Dena dela, dakigunaren arabera, kirolaren kasuan COVID-19aren kutsaketa kasu gutxi izan dira. Uztailean Udalekuekin lanean hasi ginenetik klubean ez dugu inolako kutsatze kasurik izan. Taldean positiboren bat egon arren, beharrezko neurriak hartu arte, klubean kirolarien artean ez da inolako kutsapenik gertatu protokoloen jarraipen zorrotzari esker. Hortaz, gauzak ondo egiten badira, kirola ez da kutsatze-foku bat, beraz, murriztapen aldaketak iragartzerako unea iristen denean, kirola kontutan izatea espero dugu.

Kirolariez gainera, klubeko zuzendaritza egoera berrira egokitu behar izan da?
Bai, izan ere, gure monitore eta kidego teknikoa osatzen duten langile guztiek lan-kontratua dute. Ondorioz, egoera aldatu arte langile askoren kontratuak bertan behera utzi behar izan ditugu. Jarduera sozio-ekonomikoa gauzatzen duen taldea garenez gero, jarduerarik gabe ezinezkoa da lan egiteko aukerarik ez duten langileak ordaintzea. Beste sektoreetatik egiten ari den bezala, instituzioetara zuzendu eta kirol elkarteei ere egoera honek eragiten ari digula salatu beharko dugu laguntza jaso ahal izateko. Izan ere, egoerak hobera egiten duenean guztiok egiturak bere horretan mantentzea nahiko dugu eta, horretarako, erdian laguntzak beharko ditugu.

Murriztapenekin, baina, zenbait txapelketan parte hartu ahalko dute atletek datozen asteburuetan, ezta?
Bai, abenduko azken hiru asteburuetan pista estaliko hainbat txapelketa egingo dira Anoetako Belodromoan. Kirolariek, orokorrean, denbora dezente daramate txapelketarik gabe, beraz, entrenatzen jarraitzeko motibazioa lortzen dute horrelako txapelketekin.

Urte honetako txapelketetan konfinamenduaren ondorioz klubeko kirolarien errendimendua murriztu dela nabaritu duzue?
Lehen txapelketak abuztu eta irailean egin ziren eta txapelketa autonomiko eta nazionalak izan ziren. Orokorrean emaitza onak izan ziren, bertan parte hartutako klubeko kirolariek konfinamendu ostean denboraldiarekin jarraitzeko konpromisoa hartu zuten kirolariak izan zirelako. Klubeko kirolari gehienak, ordea, entrenatzen jarraitu dute, baina, denboraldi berria prestatzeko. Irune Muguruza lortutako emaitzen adibide da, izan ere, emaitza oso onak izan dira egoera zein zen kontutan izanda.

Gabonetako Krosa bezalako herri-lasterketen antolaketa urrutiegi ikusten duzue oraindik?
Bai, era horretako probak antolatu ahal izateko pandemia kontrolatzea eta beharrezko baimenak eskuratze beharrezkoa izango da.

Azken boladako berri pozgarrienetako bat, pozgarriena ez bada, Super Amararekin akordioa berritzea sinatu duzuela da, ezta?
Bai, oso berri ona da. Egonkortasun ekonomikoa emateaz gainera, hiru urteko iraupena duen akordioa denez, 12 urte beteko ditugu Super Amararekin elkarlanean. Gainera, akordio horrek erakusten digu ere haiek gure irudi eta lanarekin pozik daudela eta aurrera jarraitzeko indarrak ematen dizkigu.

Nola planteatzen duzue Super Amara Bidasoa Altetiko Taldetik 2021. urtearen hasiera?
Klubeko gerente bezala urte berriaren hasiera esperantzaz ikusten dugula esan beharko nizuke. Egoera geroz eta kontrolatuago dagoela ikusten dugu eta txertoaren bitartez bizimodu arrunta berreskuratu ahal izatea espero dugu. Pandemiaren aurretik genuen bizimodua guztiz berreskuratzea ezinezkoa izango da, baina, behintzat kirol eta gainontzeko arlo guztietan gizarte jarduerak berreskuratu ahal izatea espero dugu.

Ramon Nogues, Bidasoa Xake Klubeko kirol-arduraduna:

“Klubeko kideen kopurua egunetik egunera hazten ari da”

Bidasoa Xake Klubak Lope de Irigoyen kalean kokatutako egoitza berria estreinatu du aurten. Horrela, etengabe handituz doan klubeko bazkide kopuruari erantzuteko gai izan da kluba. Ramon Nogues Bidasoa Xake Klubeko kirol-arduradunak azaldu duenez, txapelketa telematikoez gainera, datorren urtean berriro aurrez aurreko txapelketak jokatzeko aukera berreskuratu nahiko lukete.

Bidasoa Xake Kluba orain dela urte bat sortu zen, ezta?

Bai, joan den urteko udaran 7-8 lagunek Bidasoa eskualdean proiektu berri bat hastea pentsatu genuen. Hutsune bat ikusten genuen eta gure proiektuaren bitartez hutsune hori bete ahal izatea espero genuen. Udaran proiektua hasi eta irailerako martxan jarri genuen kluba, Palmera Montero Gunean utzitako gune batean klaseak emanez. Erantzauna nahiko ona izan zenez, lokala txiki gelditu zitzaigun. Pandemiaren ondorioz hasieran klaseak bertan behera utzi behar izan genituen, hala ere, eskolak telematikoki eskaintzeko modua topatu genuen. Udaran, aukera ezberdinak aztertu ostean, gure lokal berri hau aurkitu genuen eta aurtengo irailean hemen berriro haur eta helduei aurrez-aurreko eskolak eskaintzen hasi gara.

Egun zenbat pertsona dauzkazue klubean?

Gaur egun 70 haur dauzkagu. Helduak ere klaseak jasotzera datoz eta helduak diren 10 ikasle ditugula kalkulatzen dugu. Klubeko kideen kopurua egunetik egunera hazten ari da.

Hainbeste ikasle izanda, nola antolatzen dituzue klaseak?

Bai, zuk esan bezala, kopuruak ikusita lokal berri hau laster berriro txiki gelditzea gerta daiteke. Osasun krisialdian egonda ere, harrigarria da, baina, xake eskolak jasotzeko eskaera handia dagoela ikusi dugu. Pandemiaren ondorioz neurri zorrotzagoak hartu behar izan ditugu. Taldeka ikasle kopurua murriztu dugu, hau da, 6 pertsonako taldeak egin ditugu, gehienez, aldi berean lokalean 2 talde sartu ditzakegulako.

Nolako egitura du xakeak lurralde-mailan?

Batetik, Gipuzkoako federazioa dago, bestetik, Euskal Xake Federazioa dago ere. Izan ere, orain dela 20 urte xake klub asko zeuden Gipuzkoan, ia-ia herri bakoitzak bere xake klub propioa zeukala esan dezakegu. Pixkanaka klub horietako asko desagertzen joan ziren. Guk egoera horri buelta eman nahi izan diogu eta oso pozik gaude izandako erantzunarekin.

Maila ezberdinetako xake lehiaketak antolatzen dira?

Bai, nahiz eta momentuko egoeraren ondorioz aurten lehiaketak bertan behera gelditu diren. Dena dela, orain dela urte bat sortutako talde batentzat Gipuzkoako ligan lehiatzeko 3 talde osatu ahal izatea oso berri ona da. Hiru talde horiekin urtarrilean eta otsailean txapelketetan parte hartzen hasi ginen eta bi taldek mailaz igotzea lortu dute. Datorren urtean berriro txapelketak antolatu ahal izateko aukerarik dagoen ikusi beharko dugu, baina, aurten lortutakoa ikusita, hurrengo denboraldian 3 talde izatetik 4 talde izatera pasa nahiko genuke.

Maila absolutuko txapelketak antolatzeaz gainera, haur eta gazteentzako lehiaketarik antolatzen da?

Egungo egoera dela eta txapelketen kontua oso murriztuta dago momentu hauetan. Dena dela, internet bidez Gipuzkoa mailan haurrek jokatzen ari duten oso txapelketa garrantzitsua jokoan dago momentu honetan. Haurrak bi kategoriatan banatzen diren txapelketa jokatu ahal izateko. Batetik, handien taldea, 13 urtetik gorakoak eta, bestetik, txikiak, hau da, 11-12 urte arteko haurrak. Bidasoa Xake Klubetik handien talde bat dugu txapelketako kategoria horretan jokatzen ari dena eta txikien taldeak, berriz, bost dira. Guztira, 35 jokalari dira. Momentuz, internet bidez jokatzea da txapelketak antolatzeko aukera bakarra.

Klubean emakumeak xakearen munduan gehiago murgiltzen ari direla nabaritu duzue, aurreko urteetako kopuruekin alderatuta?

Bai, hori, oso garrantzitsua da guretzat. Izan ere, gure helburuetako bat hori da, neskak eta emakumeak ere gizonen antzera xakera hurbiltzea. Dena dela, oraindik zaila da helburu hori guztiz betetzea, izan ere, gure jokalarien %10a dira soilik neskak edo emakumezkoak. Hala ere, pixkanaka kopuru horiek aldatu eta orekatuko direla uste dut. Gainera, orain Netflix-en dagoen telesail arrakastatsu baten bitartez, protagonista xakean aritzen den emakumea denez, horrek ere neskak kirol honetara erakartzeko lagungarria izango dela pentsatzen dut.

Zein mezu bidaliko zenuke Bidasoako biztanleak klub honetara erakartzeko?

Informazio gehiago nahiko balu, lasai asko gure webgunea bisitatzera gonbidatuko nuke, hau da, www.bidasoaxake.com. Informazio guztia bertan aurkituko du. Garai hauetan edozein ekintza aurrera eramatea nahiko konplikatua dela dakigu, izan ere, ezin delako txapelketa edo bestelako aurrez aurreko ekintzarik antolatu. Hala ere, telematikoki egin daitezkeen ekintzak eskaintzen ditugu. Ez dezagun ahaztu, beste kirolekin gertatzen ez den bezala, xakea internet bidez praktikatzeko aukera dago. Hortaz, etxetik ateratzeko beharrik gabe, garunaren garapena lantzeko oso bide egokia da.

Iñigo Lavado sukaldariak jatetxe, bezero eta taxien arteko harremana aldatzeko ekimena proposatu du

Iñigo Lavado sukaldariak jatetxe, bezero eta taxien arteko lotura berrasmatzeko proiektua aurkeztu du. Horrela, Txingudi badian janaria banatzeko metodo berria aurkeztu du Taxi Bidasoarekin elkarlanean. Ficoban Iñigo Lavadok duen jatetxea izan da ekimena martxan jarri duen lehen jatetxea, baina, laster ekimenera inguruko ostalaritza establezimendu gehiago batzea espero du Singular jatetxeko sukaldariak.

Ostalaritzaren azken itxialdiak iragarri zenetik, Iñigo Lavado sukaldariak abagunea aprobetxatu eta sektorea indartzeko aukera berrien bila ibili da. Era horretan, Irungo Ficoba erakustazokan kokatutako jatetxearen mugak zabaldu eta ostalaritzaren bigarren itxialdia bere sukaldea Gipuzkoako hiri ezberdinetan zabaltzeko aukera aprobetxatu du. Eskariak egun bateko aurrerapenarekin jaso ostean, emozioen sukaldea Donostia, Lasarte, Zarautz eta Urnietaraino iritsi da.

Oraingoan, beste urrats bat eman nahi izan du, ostalaritzaz gainera, inguruan kaltetutako sektoreak laguntzeko ekimena proposatuz. Kasu honetan, jatetxe, bezero eta taxien arteko erlazio aldatzea proposatu du sukaldariak, era honetan, Irun, Hondarribi eta Hendaian zerbitzua eskainiko du jatetxeen banaketa zerbitzu berria eskaintzeko. Iñigo Lavado sukaldariak azaldu duenez, "ostalaritzaren itxialdiek erakutsi didate guztiok elkar laguntzea funtsezkoa dela egoera konplexu hau gainditzeko".

Hortaz, Taxi Bidasoako zerbitzuaren elkarlana funtsezkoa izan da proiektu berritzailea martxan jarri ahal izateko. Enrique Paule Taxi Bidasoako kontseilu errektoreko kideak azaldu duenez eskualdeko taxien sektoreak ilusio handiz ekin dio proiektu berri honi. "Helburua kalitatezko ostalaritza-zerbitzua eta kalitatezko taxi-zerbitzua batzea da", azaldu du Enrique Paulek. Iñigok ideia aurkeztu bezain laster lanen jarri zirela azaldu du Taxi Bidasoako kontseilu errektoreko kideak, elkarbanatutako ilusio hori nola bideratu zezaken aztertzeko.

Sukaldari eta taxilariak lotzen dituen esperientzia berri honek oso funtzionamendu sinplea du. Bezeroek jatetxera eskaerak Whatsapp aplikazioa erabiliz bidaltzen dituzte, hau da, jatetxearekin zuzenean harremanetan jarriz. Bidalitako mezuan izena, helbidea, eskaera eta entregaren xehetasunak zehazten dira. Ordainketa, berriz, "Bizum" aplikazioa erabiliz egiten da. Eskaera prest dagoenean, taxiak bezeroarekin kontaktatzen du eskaria entregatzeko.

Iñigo Lavado sukaldariak azaldu duenez inguruan elkarlanerako formula berriak bilatzeko nahiak bultzatutako proiektua da, errealitate berrira egokitzeko ohiko moldeak berrasmatuz. "Orain arte faktoreen ordena jatetxea-bezeroa-taxia bazen, jatetxe-taxia-bezeroa ordenarengatik aldatzea proposatzen dugu", adierazi du Singular jatetxeko sukaldariak. Era berean, sukaldarien proposamen gastronomikoak modu seguru eta erosoan bezeroen etxeetara hurbiltzeko modua izan nahi du.

Izaera irekiko ekimena

Bultzatzaile gisa, Iñigo Lavadok Ficoban duen Singular jatetxea izan da ekimena martxan jarri duen eskualdeko lehen jatetxea. Proiektu berria abenduaren 7an aurkeztu zen eta abenduaren 8an jaso zituzten jatetxean enkarguak taxi bidez banatzeko lehen eskariak. Iñigo Lavadok jatetxearen Instagram kontuaren bitartez kontatu zuenez taxi bidez banatu zen lehen eskaria Hondarribitik egin zen eta janariaren prestaketa prozesua eta taxilarien inplikazioa erakutsi zuen. Jarraian, Hendaian ospatutako ezkontza baterako eskaria jaso zutela partekatu zuen sukaldariak.

Lavado sukaldaria ekimenaren bultzatzailea izan bada ere, proiektua eskualdeko gainontzeko ostalaritza establezimenduekin partekatzeko asmoa adierazi du. COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz kontsumo ohiturak aldatu direla aprobetxatuz, eskualdeko beste ostalaritza establezimenduak banaketa sistema berri honekin bat egitera animatu ditu. "Eskualdea eta taxien sektorea suspertzeko modua izan daiteke", gaineratu du sukaldariak. Ostalaritzaren itxialdian zehar proposatuko ideia izan arren, jatetxeek ohiko zerbitzuak berreskuratzen dituztenean ere zerbitzua hau eskaintzen jarraitzeko asmoa duela gaineratu du Iñigo Lavadok.

"Orain arte faktoreen ordena jatetxea-bezeroa-taxia bazen, jatetxea-taxia-bezeroa ordenarengatik aldatzea proposatzen dugu"
Iñigo Lavado, Singular jatetxeko sukaldaria

Hortaz gain, Ander Sarratea Ficobako zuzendari kudeatzaileak Singular jatetxeko sukaldariak martxan jarritako ekimena babestu nahi izan zuen. Horrela, Ficoba erakustazoka bat baino zerbait gehiago dela erakutsi nahi izan zuen, atzean ezkutatutako langile eta profesionaletan zentratuz. Pandemiaren eraginez Ficobaren jarduera geldirik dagoen une hauetan, elkarlana sustatzen duten ekimen berritzaile hauen sorrera eskertzekoa dela adierazi du Ander Sarrateak.

Elkartasunaren adibide

COVID-19aren lehen olatuak ostalaritzaren lehen itxialdia eragin zuenetik Iñigo Lavado sukaldaria bere sektorea eta ingurukoak laguntzeko ekimen berrien bila ibili da. Ingurukoak laguntzeko grin horri esker eta Bidasoa Bizirik elkartearen laguntzari esker sortu zen "Gentes del Bidasoa" saioa. Bideo programa honen bitartez sukaldaritza ekintzailetzarekin elkartu nahi izan zituen Iñigo Lavadok, Ramon Aramburu laguntzarekin. Sukaldaritza saio baten ohiko formatutik aldenduz, bizipenak partekatu eta eskualdeko ekintzaileei ahotsa emateko modua topatu zuten. Saioaren lehen denboraldiak izandako arrakastari esker, bigarren denboraldiaren grabazioan murgilduta daude orain.

Iñigo Lavadori ez zaizkio ostalaritzaren sektorea berritu eta, era beren, indartzeko ideiarik falta eta osasun krisialdi garaian ere proiektu berriak aurkezteko gai dela erakutsi du. Denborak erakutsiko du, ordea, jatetxeak eta taxien arteko lotura berri hau noraino iritsiko den.

Eguzkitzako gela egonkorra

Horrela ikasten dituzte kantak gure gela egonkorreko ikasleek.

"Udazken ken ken"

"Lau teilatu"

Denbora-pasak

7 hitz: Eguberriak

G	Z	I	I	F	M	E	Z	I	X	Z	L	B	T
L	I	Z	G	E	L	U	R	R	A	U	W	I	S
U	B	A	Z	Y	E	W	T	U	S	H	V	X	K
Q	E	R	O	Q	O	P	A	R	I	A	C	X	K
M	P	R	K	A	Q	R	Z	K	C	I	J	W	Q
J	O	A	U	S	O	A	O	U	P	T	K	E	S
V	L	M	K	T	O	L	E	N	T	Z	E	R	O
Y	B	Q	M	O	R	M	Z	Z	V	A	D	V	T
N	O	F	L	A	Q	W	Y	V	F	F	J	R	A
L	R	O	B	W	C	H	P	M	L	E	X	V	Y
N	O	Y	J	D	W	D	J	Q	E	T	V	W	D
U	I	I	K	X	Z	E	L	Q	C	S	N	G	P
X	P	R	Y	W	H	M	C	P	X	P	E	D	R
B	I	Y	T	L	Y	I	U	U	G	P	X	G	W

Olentzero, elurra, zuhaitza, opari, izarra, astoa, polboroi

	4			3		1	8	2
2						4		6
3					2			
7	6		3	9				1
1					7	3		8
		9		6				
8					3		2	5
		2	9	1	8			4

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Olentzero guria ezin dugu ase

Olentzero guria
ezin dugu ase
osorik jan dizkigu
hamar txerri gazte,
odolki eta xolomo
makiña bat heste
Jesus jaio dalako
kontsola zaitezte

Irungo G.O.S., 62 urteko gizonari jasoa. Tolosan jaio eta Irunen bizi eta hil zen (1904) osaba bati ikasi zion. (Irun, 1959-XII-6). (El Bidasoa, 1959-XII-19)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Lekaenea LH6

LEHENGO ETA GAUR EGUNGO ESKOLA

Irun. 1919. urtea.

Urte eta hiri honetan bertan izan zuen sorrera gaur egun gure eskolak, Lekaeneak. Eraikuntzak 49.955,90 pezeta balio izan zituen. Irungo sutearen ondoren, 1936. urtean, maistra bakar batekin eskolak jarraitu zuen aurrera, adin guztietako neska-mutilak joaten zirelarik.

Tira ba...gozen denboran bidaiatxo bat egitera...

Baina, nolakoak ziren duela 100 urteko eskolak? Hasteko, momentuko moda zela eta, ikasle zein irakasleen janzkerari egingo diogu erreferentzia. Neskek beti gona motzak, mutilek praka motz eta galtzerdi luzeak (nolako hotza pasako zuten neguan) eta emakume helduek, kasu honetan maistrek, gona luzeak eramaten zituzten. Ez zuten bakerorik, ezta zapatilarik erabiltzen.

Gorputz hezkuntzako klasea eta gero ezingo ziren dutxatu! Beraz, arropa berarekin geratu beharko ziren!

Zer esanik ez teknologiari buruz. Garai honetan arbela digitala, fotokopiagailuak, inpresorak, Smart TVak, mini-portatilak, ordenagailuak, proiektoreak, altabozak, Wifia eta eskanerrak ditugu eskolan...zenbat gauza ditugun! Lehen ez zen horrela. Lehen ez zeukaten pantailarik ezta ordenagailu sinplerik ere ez. Arbela beltzak, tiza potoloak eta lumak erabiltzen zituzten. Abako handiak ere izaten zituzten geletan; egurrez eginiko lanak izaten ziren.

Duela 100 urteko gizartea ez zen gaur egungoa, noski; neska-mutilak banatuta egoten ziren. Batzuetan denok elkarrekin egoten ziren gela berean, eta kasu horietan eserita banatzen zituzten: neskak errenkada batean, mutilak, bestean.

Orain dela 100 urte distantzia handiagoa zegoen irakasle eta ikasleen artean, izan ere, gelan, klaseak emateko, koska batzuetan igota zeudelarik ematen zituzten klaseak; batzuetan ere inguruan hesi txiki bat zutelarik.

Altzariak ere desberdinak ziren oso. Mahaiak eta aulkiak erabat desberdinak ziren, "pupitreak" zituzten: egurrezkoak ziren hauek eta barnealdean kajoia izaten zuten lanerako ikasleek behar zuten materiala bertan jasotzeko. Bankuetan esertzen ziren, egurrezkoak hauek ere. Arbel ilunak zituzten. Klariona lodiak. Lurreko egurrek, gaur egungo lauzak ordezkatzen zituzten. Mapek ere gelak hornitzen zituzten, ez ziren gaur egunekoak bezain koloretsuak izango, baina ziur beren lana betetzen zutela.

Nolakoak izango ote dira hemendik 100 urtetara gure gelak...?



Diego Martinez, tronboi jotzailea:

“Datorren urtean musika sortzen eta kontzertuak eskaintzen jarraitu nahi dugu”

Argazkia: Estudio Gover

Diego Martinez tronboi jotzaile irundarra da. Hirian “Luz de Putas” edo Burrunba bezalako taldeetako partaide bezala ezaguna da. Orain, ordea, Modus Operandi ska musika taldearekin “Dantza Gaitezen Hil Arte” diskoa kaleratu berri du. Irundarra taldearen bigarren diskoaren sorrera prozesuaz mintzatu da.

Nondik datorkizu musikarekin duzun harremana?
Irungo ume asko bezala 4-5 urte nituenean Irungo Musika Eskolan hasi nintzen. Adin horietan oraindik benetan ez dakizu musika gustuko duzun edo ez eta ni hasieran nahiko bihurria nintzen. Hamalau urte bete nituenean kalean jotzen hasi nintzen eta orduan ikasi nuen zer zen musika eta zer zen gustatzen zitzaidana.

Irunen musika-talde ezberdinetatik igaro zara, esperientzia hori nabaritzen duzu orain?
Bai, azken finean, praktikatzeko modua da. Hamalau urterekin lagunak batu eta Irungo Atsegiñaren txaranga berreskuratu genuen. Hortik, “Luz de Putas” taldearekin hasteko deitu ziguten batzuei. Burrunbarekin orain dela 5 urte hasi ginen eta, egia esan, oso ondo joan da dena.

Musika festa giroarekin loturik joan ohi da. Nola bizi izan duzu osasun krisialdiak baldintzatutako urte hau?
Burrunbarekin emanaldia Inauterietakoa izan zen. Udaran saio bat izan genuen. Orain Gabonetan Irunen jotzeko aukera lortu dugu. Horiekin ditugun gastuak ordaintzeko dirua biltzea espero dugu. Gastuak estaltzeko dirua lortu arren, egoera guztiz kontrolatu bezain laster gure asmoa kalera eta jai-girora itzultzea da.

Eskuartean beste proiektu bat duzu. Nola iritsi zinen Modus Operandi taldera?
Taldekide ugari ezagutzen nituen eta tronboia behar zutela esan zidaten. Kasu honetan, taldekide bakoitza herri bateko garenez, konplikatuagoa da entseatzeko elkartzea, baina, nola edo hala moldatzen gara. Egoera honetan batez ere, uneoro murriztapen eta arau berrietara adi egon behar gara beti. Iruñean egiten ditugu entseguak eta askatasun gehiago dagoen unetan ahal bezain beste entseatzeko aprobetxatzen dugu.

Egoera ezohikoa izan arren, disko berria kaleratzeko moldatu zarete?
Konfinamendua hasi zenean diskoa ateratzeko lana hasita genuen, beraz, mugikorra eta “Skype” bitartez eman behar izan genituen diskoaren lehen urratsak. Udaran, elkartu eta entseatzeko aukera izan genuenez, gauzak azkarrago egin genituen, errazagoa baita horrela.

COVID-19ak asko baldintzatu du diskoaren sorrera prozesua?
Bai, adibidez, bideoklipa Durangon grabatu genuen eta osasun krisialdiaren bigarren olatu honetan konfinatutako lehen herrietako bat izan zen. Hala ere, beharrezko paper eta baimenak eskatuz lana aurrera ateratzeko moldatu ginen.

Lehenaren ostean, errazagoa da bigarren diskoa ateratzea?
Bai, gainera, gure kasuan taldeak lehen diskoa atera zuenetik oraingora arte taldean hiru partaide aldatu gara, hau da, baxu-jotzailea, bateria-jotzailea eta, ni neu, tronboi-jotzailea. Beraz,taldekideen erdia garenez, aldaketa hori nabaria izan dela uste dut.

Disko berria abenduko hilabetearen hasierarekin kaleratu zenuten. Nolako harrera izan du orain arte?
Momentuz oso harrera ona izaten ari da. Abenduaren 1ean aurkezpena egin genuen Gasteizen, Jimmy Jazz aretoan. Aurkezpenaren ostean jende asko gurekin kontaktuan jarri da diskoa asko gustatu zaiola esan eta aldaketa nabaritu dutela esateko.

Egoera ezohikoa izan arren, lehen kontzertuak baieztatzea lortu duzue?
Bai, lehen kontzertua urtarrilaren 15ean egingo dugu Bilbon, Santana 27 aretoan. Hortaz gain, beste hiriburuetan kontzertuak eskaini ahal izateko modua bilatzen hasi gara. Ahal bezain beste kontzertu eskaini nahi ditugu, mugikortasun murriztapenen ondorioz, jendeak mugitzeko zailtasun gehiago izango dituela kontutan hartuta.

Osasun krisialdiaren ondorioz SOS Kultura bezalako mugimenduak sortu dira eta zuen taldeak ere mugimenduarekin bat egin du?
Bai, azken finen, egoera guzti honek guri ere eragiten digu. Enpresa gisa, diru sarrerarik ez badago, ez dugu gastuak estaltzeko diru nahikorik. Hala ere, bada gu baino gehiago, egoera honen guztiaren ondorioak benetan sufritzen ari den jendea, esaterako, teknikariak edo kontzertuetan agertokian ikusten ez diren guzti horiek.

Urtea proiektu berri batekin amaitzea lortu ostean, nola begiratzen diozu 2021. urteari?
Egoera honekin zaila da aurreikuspenak egitea. Datorren urtean musika sortzen eta kontzertuak eskaintzen jarraitu nahi dugu. Orokorrean, jendearen aurrean berriro musika eskaintzeko aukera berreskuratu nahi dugu. Jendearen berotasuna, kontzertuetan askatasunez dantzan egin edo jarraitzaileengana hurbiltzeko aukera faltan sumatzen dira.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gazte Gabonak

Martindozenea Gaztelekutik hainbat ekintza antolatu dituzte Gabonetarako 12-17 urte arteko gazteentzat. Ekintza eta tailerretan parte hartu ahal izateko plazak agortu baino lehen izena ematea beharrezkoa da 690 706 471 telefono-zenbakira WhatsApp aplikaziora idatziz.

Gainera, kontutan izan Gaztelekura lehenengo aldiz sartu ahal izateko baimen orria betetzea derrigorrezkoa dela. Baimen orria, ekintza guztien xehetasunekin batera, Gaztelekuaren webgunean daude.

Abenduak 22: Loteria
Gaztelekuko loteria eguna iritsi da! Nor izango da opariz betetako kutxa etxera eramango duen zorteduna?! Ordua: 17:30

Abenduak 25: Opari tailerra
Eskuz egindakoa baino opari politagorik ez dagoenez, arratsalde honetan zuretzako berezia den pertsona horrentzako oparia sortzeko aukera izango duzu! Ordua: 17:30

Abenduak 24: Suchard turroia
Eguberriko postrea gure esku!! Suchard turroi goxoa egiten ikasiko dugu, eta etxera eramateko aukera ere izango duzue! Ordua: 16:00

Abenduak 26: Scape Room - Viento en Popa
Hiru talde ezberdinetan banatuko gara, eta Irunen kokatua dagoen Scape Room honetatik ateratzen saiatuko gara. Lortuko al dugu denek ateratzea? Orduak: 11:30, 16:15 eta 18:00etan.

Abenduak 29: Asexorate VR
Sexualitatea lantzeko modu ezberdina aurkitu dugu...errealitate birtualeko betaurrekoak!! Taldean jolas eta dinamika ezberdinak egin ondoren, eguneko ekintza bukatzeko errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz bideo motz bat ikusiko dugu. Ordua: 17:30

Abenduak 30: Krono Ginkana
Ginkana honetako pista guztiak ulertu eta deszifratzeko gai izango al zarete? Kontuz, KRONO ginkana izango da, beraz adi denborari!! Ordua: 17:30

Abenduak 31: Mendi irteera
Mendira urteari agur esatera igotzea baina plan hoberik ez dago! 2020 urtea elkarrekin utziko dugu atzean Erlaitzetik dauden bistaz gozatuz!. 10:00etan geldituko gara Irungo Udal Euskaltegian (Urdanibia plaza 5).

Urtarrilak 2: La Casa de Papel
La Casa de Papel telesaila ikusi duzu? Arratsalde honetan honi buruzko jolasetan arituko gara! Ordua: 17:30

Urtarrilak 5: Digital Trends
Yunimat, Amaia Amunarriz eta Iban Garcia, gaur egun ezagunak egin diren "eduki sortzaileak" dira, eta Gaztelekuan izango ditugu arratsalde honetan, haien esperientziak lehen pertsonan kontatzeko. Instagramer, tik toker edo influencer izateari buruzko zuen galdera eta dudei erantzungo diete, eta gertutik haien egunerokoa ezagutzeko aukera izango duzue. Ordua: 16:00 eta 18:00etan.

Doktorego aurreko ikerketarako Fulbright beken 2021/2022 deialdia

Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan 2021eko ekainetik 2022ko abendura bitartean sei eta hamabi hilabete bitarteko denboraldi batean edozein diziplinatako doktorego aurreko ikerketa egiteko bekak.

Zer eskakizun bete behar dituzte hartzaileek? Espainiar herritartasuna izatea, goi mailako titulazioa izatea, doktoregoa Espainian egiten ari izatea eta Ameriketako Estatu batuetan doktorego aurreko ikerketa proiektuak egin nahi izatea.

Epea: 2021eko urtarrilaren 12an

Ate irekien jardunaldia abenduaren 15ean Martindozenea Gaztelekuan

Martindozenea Gaztelekuak urritik berriro 12-17 urte arteko gazteei zerbitzua eskaintzen hasi dira. Oraingoan, berriz, gazteen guraso, aitona-amona eta tutoreei zerbitzuaren funtzionamendua erakusteko ate ireki jardunaldia antolatu dute. Gaztelekuko langile taldeak espazioa erakusteaz gain, Gaztelekuaren aurkezpena eta honen helburuak azalduko ditu, sortu daitezkeen zalantza guztiei erantzuteaz gainera. Hortaz gain, COVID-19aren aurrean, Gaztelekua espazio segurua egiten duten babes neurrien berri ere emango da.

Eguna: Abenduak 15, asteartea.

Ordua: 19:00etan, 19:15etan eta 19:30etan.

Tokia: Irungo Martindozenea Gaztelekua (Elizatxo Hiribidea, 18 zk.).

Jardunaldietan parte hartu ahal izateko aurretiaz izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, 943 63 68 26 telefono zenbakira deitu edo 690 706 471 zenbakira WhatsApp aplikazioaren bidez idatzi.

Astialdiko zuzendari ikastaroa

Haur eta nerabeen astialdiko zuzendari-ikastaroa 2020-2021, Eusko Jaurlaritzak homologatutako diplomarekin.

Noiz: 2020ko abenduaren 19tik 2021eko ekainaren 12ra.
Ordutegia: Larunbatetan, 09:00-18:00, eta asteburuetan, 09:30-13:30
Formatua: Aurrez aurrekoa.
Hizkuntza: Euskara.
Prezioa: 100 €. Gutxienez ikastaroaren % 80 egiten duenari matrikularen kostuaren %75 itzuliko zaio.
Betebeharrak: Alderdi teorikoa bukatu aurretik 21 urte izatea eta EAEn homologatutako begirale-titulua izatea.
Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
Ordainketa: Diru-sarreraren ziurtagiria, ikasle eta ikastaroaren izenarekin.
KUTXABANK: ES51 2095 5004 47 1060928339
Nortasun-Agiria: NANen fotokopia.
Begirale-tituluaren kopia.
Izena emateko azken eguna: Abenduak 16.



Abenduak

17

KZguneko zuzeneko hitzaldiak

Zer: Gabonetarako aplikazioei buruzko hitzaldia, munduko museo onenak online non bisitatu daitezkeen ikusteko.

Non: Online, KZguneaTIC izeneko Youtube-kanalean.

Ordua: 18:00etatik 18:30etara.

Prezioa: Doakoa.

Hizkuntza: Gazteleraz.

17

Hitzaldia: Gerra eta Pandemien artean. Lehen Mundu Gerra eta Espainiar Gripea.

Zer: Iñaki Etxaniz, Euskal Herriko Unibertsitateko Historia doktorearen hitzaldia.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00etatik 20:00etara.

Sarrera: Librea, aretoaren edukiera bete arte.

Hizkuntza: Gazteleraz.

19 eta 20

Dantza garaikidea

Zer: Myriam Pérez Cazabón.

Non: Menchu Gal aretoan.

Ordua: Abenduaren19an 19:30etan eta abenduaren 20an 12:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin, aretoaren edukiera bete arte.

Gonbidapenak: Irungo turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egunean bertan, 50 minutu lehenago.

26

Bizinema Bang Bang

Zer: "Hook" + "Pesadilla antes de Navidad" pelikulen emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo Amaia KZaren leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.

Oharra: Filmak jatorrizko bertsioan emango dira, gaztelerazko azpitituluekin.

27

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Zer: "Xaguxarroski kondea" pailazo emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,40 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 60 minutu.

29

Magia ikuskizuna

Zer: Disney Channeleko Club Houdini telesail ezaguneko magoak, Sun Magoak, "Houdini, el mago del club" ikuskizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,75 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo turismo bulegoan edo Amaia KZren leihatilan ikuskizunaren egun berean, 50 minutu lehenago.

Iraupena: 70 minutu.

Denbora-pasen emaitzak

G	Z	I	I	F	M	E	Z	I	X	Z	L	B	T
L	I	Z	G	E	L	U	R	R	A	U	W	I	S
U	B	A	Z	Y	E	W	T	U	S	H	V	X	K
Q	E	R	O	Q	O	P	A	R	I	A	C	X	K
M	P	R	K	A	Q	R	Z	K	C	I	J	W	Q
J	O	A	U	S	O	A	O	U	P	T	K	E	S
V	L	M	K	T	O	L	E	N	T	Z	E	R	O
Y	B	Q	M	O	R	M	Z	Z	V	A	D	V	T
N	O	F	L	A	Q	W	Y	V	F	F	J	R	A
L	R	O	B	W	C	H	P	M	L	E	X	V	Y
N	O	Y	J	D	W	D	J	Q	E	T	V	W	D
U	I	I	K	X	Z	E	L	Q	C	S	N	G	P
X	P	R	Y	W	H	M	C	P	X	P	E	D	R
B	I	Y	T	L	Y	I	U	U	G	P	X	G	W

9	4	7	5	3	6	1	8	2
6	8	3	4	2	1	5	7	9
2	5	1	8	7	9	4	3	6
3	9	5	1	8	2	6	4	7
7	6	8	3	9	4	2	5	1
1	2	4	6	5	7	3	9	8
4	7	9	2	6	5	8	1	3
8	1	6	7	4	3	9	2	5
5	3	2	9	1	8	7	6	4